

# ORAIN 100 URTE

## MARIJESIEN KRONISTAK EUZKADI\* EGUNKARIAN

*Las referencias más antiguas sobre Marijeses se publicaron en el periódico nacionalista Euzkadi hace 100 años. Son interesantes porque, además de explicar cómo se realizaban entonces, nombran a los cantores, hablan de la emoción de niños y mayores al escucharles, publican las coplas oficiales/puristas y las cómicas, comentan el éxito del estreno coral de Mari-Jesiak de S. Altube, y reflejan otras cuestiones lingüísticas en boga.*

Gure **Marijesiak 4:00 Bederatzi gau hotzetan** izeneko proiektuaren inguruan orain arte ezagutubako beste informazio batzuk agertu jakuz. Prentsan XX. mendearen hasieran ikertzen ibili gara, eta hara zer topau dogun. Euzkadi izeneko egunkarian badira marijesien ganeko albisterik zaharrenak, eta gehienak euskeraz ganera. Gernika inguruko kroniken idazleak edo kazetariak ezizenakaz (batzuk sinatu barik be bai) agertzen jakuz, egunkarian ohikoa zan eran, eta beti ez dira erraz identifiketakoak:

### Kronistak

**-Pixparro**, marijesia bera, baina ez dakigu benetako izena.

**-Belu-mendu** edo **B.**, hau bai ondo ezaguna: Julio Bareño Atxirika (1890 - 1964), kultura arloan folklore-biltzaile handia, batez be kantena. Gernikako orfeoikoa (kantaria eta zuzendaria). Idazlea. Bankaria, zinegotzia. Artxibo interesgarria gorde eta partekatu ebana (A. de Zavala).

**-Txokilloako Txepetxa**. Izena guztiz originala. Lumotar jatorrikoa, seguru, baina ez dakigu besterik. Kantariren bat ete zan?

**-Ibon**. 1937ko kronikan. Gernikarra baina ezezaguna.

**-S.tar A**. Sebero Altube.

**-Batxi**. Juan Bautista Bilbao. Arratzukoa. Inguruko herrietako barri emoilea.

**-Pello Mari**. Beharbada Kepa Enbeita bera. Muxika inguruko kronikak.

**-Beuzko. Ezezaguna**. Gautegez Arteagako barri emoilea.

*Euzkadi* egunkariaren jabea Euzkadi Buru Batzarra zan eta egunkariaren bidez alderdiaren (batzokiak / Uri Buru Batzarrak) koordinazio beharra be islatzen da bere orrietan. *Euzkadi* egunkari nazionalistak leku garrantzitsua hartu eban sasoi haretan Bizkaian argitaratzen ziran beste egunkariaren

artean:

*La Gaceta* (1901tik aurrera, katolikoa), *El Liberal* (1901tik aurrera, liberala- sozialista), bigarren maila batean *La Tarde*, *Noticiero Bilbaíno*, *Nervión*, *Pueblo Vasco...* *Euzkadik* (1913-1937) iraun eban bitartean irakurrietako bat izan zan batez be Bizkaian. Informazio orokorreko egunkaria zan: gure kasuan, euskal ohituren artean Marijesien gaia Egunekua atalean (1. orrialdean) edo Vizcaya, Euzkel atala, Gayak, Euzkel abendaren elez, Euzko elez” orri barruetan agertzen da.

### Lehen azalpena 1916an

Marijesien erreferentziarik zaharrena **1916**ko abenduaren (lotazilaren) 23an daukagu, *Egunekua*. *Marijesiak Gernika'n Pixparro* marijesiak sinatzen dabena. “Gernika eta beren albo errietan baida oitura zaarr, ederr eta euzkel-usain gozo-gozoko bat. Antza danez, aintxiñenatarikoa da eta benetako gernikarrak biotz-biotzez dau maite, ekandu jaungoikozko ori” (jatorrizko ortografian).

Azalpena emoten dau: Marijesiak Marijose'ak esan nahi dau eta izen zerutarrok sarri esaten dira kanta “polit” horreetan, eta hortik izena; Gabon aurreko bederatzi egunetan “mutil pillotxu batek”, laurak-bostak aldean (albo herrietan be gehienetan behintzat gabaz), kanta polit-politak kantetan dabez, Gabonak hurrean dirala gomutau erazoteko. Horregaz batera dino “zartadatxu gozoa” eragiten deusola ohe epelean dagoanari, batez be umetxoei.

Umeak altzetako be eskatzen dabe, eurak txikitan egiten eben moduan, eta egunez “beste auturik eztarabile”. 1916an langileak –behar asko edo, II. Mundu Gerragaitik– ez dabe urten eta euren orde z mutil gazteak urten dabe kantari, hori dala-eta, aupada ederra egiten deutse gazteei. “¡Ez utzi iñoiz galtzen oitura samur eta gernikarr-gernikarr horrerri!” “¡Eztakizue zelako pozez ikusten daben gernikarr zintzoak zuen asmo ederr ori! Batez bere, Gernika'z kanpora



*Euzkadi* egunkariaren goiburua (1916-12-23): Marijesien lehen aipamena.



Nazionalisten lagunartea Kortezubín 1915 inguruan : Luis Comadira, Manuel Gainza, Juan Onaindia, Sebero Altube, Julio Bareño eta Ander Zameza.

bizi diran bertoko seme-alabak. Poz-agurr, txalo eta gora zeueri!". "Marijeselari" berbea erabilten dau marijesi kantaria esateko (ez dogu beste inon halakorik ez idatzita ikusi ez ahoz entzun).

Hara hor gure Marijesiak 1916an. Ez dira asko aldatu: etxetik, ohe epeletik entzuten daneko emozino bera bizi dogu umeak eta nagusiok gaur, 100 urte pasau arren. Kanpoan bizi diranentzako akordua be bai. Kaleko edo eguneko autua be bardin. Nesken partaidetza, hor bai aldaketa nabarmena!

### Lehen azalpena 1916an

Hurrengo urtean (1917-12-20) Txokilloako Txepetxak (?) gogoratzen dau *Egunekua* atalean *Gernika'ko Mari-Jesiak* (Sebero Altubek idazten eban moduan) martxan dagozala: bederatziz gazte, beharginak eta ikaste-mutil estudiantiak bat eginda: "Txaparroa", Retes, Urtiaga, Txarron, Arrien, Endika (eztakit abixenik), Arostegi, Olejua eta Kalle (sic)... gernikar zaldun gazte eta biergen kantari goiztarrok".

Badira Gernika inguruan be Marijese abestiok ilunkaraxuan polito kantetan dabezanak, "Busturi, Lumo, Ajangiz eta beste erri txiki askotan". Hitz-neurtu honeek hurrengo baten argitara emongo dauzala dino (hegal batean Kirikiño atal arduradunak ondo eretxita eta bertsoen eskabidea be egiten dau).

Urtean urtean datu gehiago dagoz: 1918-12-23ko datan, *Euzko abendaren elez. Gernika. Mari-Jesiak*, sinatu barik baina leku handia hartuta agertzen da. Barrero dino "emengo eta inguruetako ekandu eder eta kristau bat". Kantarien izenak emoten dauz: Zautua, Gabiola, Ibaizabal (sic), Ormaetxea, eta Urtiaga mutil gazteak.


**Antxiñako Gernika'ko Maria Jese edo Gabon Kantak** titulupean lehen eta bigarren doinuen koplak ("izkiak"), 23 kopla (11+11+Sakramentu) emoten dauz. Egurrola inprentak izen bereko orritxua argitaratu eban sasoi horren bueltan, baina izatez Jose Antonio Aranaren artxiboan dagoan makinaz idatzitako kopladia bera da (eskuz zuzenketaren bat daukana, Sebero Altuberen letraz egindakoa). Hizkuntzaren aldetik joera garbizalea agiri-agirian: "euzkera motrolloz abesten dira baña Batzoki onetako euzkel-idazliak orraztu doguz puskatxu bat".

### Koplak euskera orraztuan

Euskara motrolloa (sic) da kaleko marijesien euskerea, argitara emoteko orraztu behar izan dabena. Orrazkera modukoak: atsegin andia-gaz/ kontentuaren handiz, paradisu dontsuban/ eternalian, eguzki Jaungoikozkua/ dibinala, diamanetzekoak/urregorritzkoak, leiyo/bentana,... Eta Jesukristo adoratzen zaitugu bigarren lelotzat. Kopla batzuk ia ezezagun bihurtu dira: Sakramentu Santua/ Jesus honen gorpua/ Izan bedi munduan/ beti bedinkatua... Koplen argitaraldia sorpresa handia izan da, eta sasoi horretan erabilten ziran euskera erregistro desbardinaren lekukoa da oso-osorik.

Honeexek dira beharbada Euzkadi egunkariak gure marijesiak zabaltzeko eginiko ahaleginik handienak. Hurrengo urteetan, bederatziruena aitatuta agertzen diran barriak (berez laburragoak) jasoko doguz.

1921eko abenduaren 21ean *Egunekua* atalean *Gernikako ekandu bat* titulupeko *Gernika'ko Mari-Jeseak dirala-ta* artikuluan dino **Belu-menduk** ordura arte inork ez dabezala argitaratu kantariak eskean dabilzala "abestuten diran itz-neurtu barregarriak", ainbeste urtetan abestuten ibili dan Ausotxu ezagun ospetsuari aurreko domekan abestu era-zoegin eutsozanak.



Julio Bareño Atxirika "Belu-Mendu". Gernikako kronista Euzkadin.

Eta “erriak, berberak, abestuten dauzan lez ipinten doguz, ezetarikoa apaintasun ez orrastasun barik”, “Bart Belenen” doinukoak danak. Gaur egun be ezagunak dira “Or goiko landetan”, edo “Or goien Juaniko”, “Bederatzi gaoiz (sic) tristetan/ ibilli gara otzetan/ emoten badeu limosnatxu bat / sartuko dogu boltsetan” (emoten badeu –berorrek, errespetu handikoa–).

### Kopla barregarriak

Gaur egun kantetan ez dan “Or goiko piñuen/ gizonak eindeu kiñue/ esan doskule emongoskule/ trabanarako dirue” (tabernarako, antza danez); eta lehenengoa “Emen gatoz, emen gatoz/ lotsaz eta bildurrez/ etxeko jaunak esango dosku/ kanteko dogun edo ez” (antxineko “kantau edo erreza” antzera). Belumenduk aitortzen dau ez dirala “literaturatsua” izango, baina “oitura polit polit baten zatiak” dirala. Ez dira gehiago, “beñik-pein Ausotxuk ezekijazan, eta nik gitxiago berrogei urte inguru gitxiago daukadaz-da”, Belumenduren esanetan

### 1922an Altuberen Mari-Jesiak Pasealekuan

Gernikan Eusko Ikaskuntzak antolatu eban III. Biltzarren inguruan, Sebero Altubek koru mistorako harmonizatutako “Mari-Jesiak” partiturearen estreinaldiaren barri emoten dabe gaztelaniaz, *El concierto de anteayer* (1922/09/13). Kontzertuan bandak be jo eban Gregorio (Segundo) de Olaeta zuzendaria zala, eta bigarren atalean koru mistoaren aurkezpen arrakastatsua izan zan, “verdadero acontecimiento artístico y de gran consagración popular”. “Todas las obras fueron aplaudidas con cálido entusiasmo, pero la terminación de “Mari-Jesiak”, de marcado y puro sabor localista, prorrumpió en una delirante y estruendosa ovación, lo que obligó al Coro mixto a bisarla”.

1923ko abenduaren 25ean sinatu barik *Información Regional. Vizcaya. Guernica* izenburupean Gabon eguneko kronikea emoten dabe gaztelaniaz puntu laburretan: ezkontza batzuk, Foruko abadearen heriotzea, idi probak, eguraldi txarra (tenporala), eta hurrengoan “Sin embargo, un nutrido grupo, que había engrosado con el que durante nueve días ha recorrido de madrugada nuestras calles, ha entonado los Marijeses (cantos de Navidad)”. “El aurreku de la mañana se vió bastante concurrido; pero gracias mil al estado atmosférico, no hemos tenido que soportar luego las canciones y berridos a que otros años se nos condenaba”. Marijesiak eguneko orduetan kaleetan astrapalan ete?

1927ko abenduaren 18an, Euzkel-atala izenekoan lotzilaren 16ko kronikan, *Gernika*. (5. puntuan) *Marijesiak*. Belumenduk idazten dau Marijesiak goizaldean hasi dirala. Aspaldiko partez “geure adiskidea” Ibarzabal tar Danel

(*Estebanillo*) da bakarlaria, “ederto abestuta” ganera. Ohe epeletik “abesti samurrok ondo pozik” entzuten dirala dino, eta “Oraintxe urte batzuk Marijesion izki guzti guztia argitaldu gendun geure izparringi onetan”.

### Azken eguneko baibelenak

Azken erreferentzia 1936ko abenduaren 25ean, Ibon izeneko batek sinatutako *Gayak. Josu’ren jayotza* azalpen testuan “Josu Umetxubaren aintzazko abestijak” euren testuinguruan dakar: “Bart Belen’en, bart Belen’en, jayo da Jesus Nazaren” leloa, “Nazaretako templuan dago” eta “Korraletako ardiak” kopla biak osorik. “Gernikar abeslarijak ondoen abestu” izan dabela dino.

Olerki-arauz neurtuta “goralgarri baino beralgarri” izango dirala dino, baina umetan ikasitako abestiak gaur “bardin-bardin abestuten dabez: eresi bardiñaz, izki bardiñaz”.

Bere esanetan “euskera nastuban” idatzita egon arren, poza eta alaitasuna agertuteko idatziak dira, Asmo hori gizaki guztien bihotzetara heldu eragitea gurako leuke idazleak, Josuren jaiotza ospatzen dan urteurren honetan. Zentzu erlijiosoa azpimarratzen dau argi eta garbi.

Eta honeek dira, ba, orain 100 urteko *Euzkadi-k* gure Marijesien ganean argitaratu eban: garaiko giroa eta orduko marijesien ganeko informazio zehatza emoten deuskue. Gabonen bueltan beste ohitura eta kantu batzuen barri be emoten eben, herri txiketako ohitura jatorrei zor jaken arretari erantzunez.

Giro horretan Marijesiak aparteko lekua hartu eben 8-12 orrialdeko egunkari horretan eta

zatika baina koplada argitaratzeko gunea be izan zan. Euskera motolloa eta nahastua vs. euskera garbiaren eztabaidaren ganetik, marijesien herrikoitasunak eta jatortasunak egin eban aurrera.

Prentsan halako kronikak egiten ziren sasoi berean argitaratu zan Pedro Bidaguren Garratza lumotarraren “Marijesiak” liburutxua (1919), aurtan 100 urte betetan dabezana, eta berau be marijesien bizitasunaren seinaleztat hartu leiteke.



▲ *Amagoia Lopez de Larruzea Zarate*  
*Marijesiak 4:00 Bederatzi gau hotzetan proiektuaren aholkularia.*  
*Argazkiak: Gernikazarra Artxiboa*

\*Euzkadi egunkaria sarean ikusgai  
<http://www.liburuklik.euskadi.eus/handle/10771/12324>



Daniel Ibarzabal “Estebanillo”, bakarlaria. Gernikako Udalaren Musika Bandako jantzia. 1920.

# ALDABA

Gernika-Lumoko Aldizkaria.

2019 – iraila-abendua – 210 zkia. 37 urte

## Edita

### ALDABA

Gernika-Lumoko Aldizkaria

ISSN.: 1131-902 X

Dep. Legal: BI-984-92

CIF: G48788798

## Oficinas:

Artekaleara, 8-3ª planta

48300 Gernika-Lumo

Bizkaia

## Teléfono:

946 25 59 01 (Redacción)

946 25 02 74 (Talleres gráficos)

E-mail: aldaba.ger@gmail.co

## Imprime:

Gráficas Gaubeca

## Consejo de Redacción:

Jabi Yarza

Teo Gandarias

Marian Rosco

Vicente del Palacio

## Coordinadora:

Marian Rosco

## Fotógrafos:

Ángel Grande

Maika Salguero

Toribio Beares

Txebi Arriaga

## Dibujos:

Luis Iriondo

## Colaboradores en este número:

Busturialdeko Hitza

Gernika-L. Prentsa

Gernikazarra

Kultur Etxea

Ricardo Arrien

Segundo Oar-Arteta

Nueva Europa

Inés Gandarias

Ramón Zallo

Jose Antonio Ortuondo, Txufo

Ander de la Fuente

José Ángel Etxaniz

Amagoia López de Laruzea

Alberto Uriona

Inma Ruiz

Pili Ibarra

## SECCIONES FIJAS


- 4 El Balcón Sacafaltas.
- 5 Organigrama municipal.
- 10 Zahar berriak.
- 16 Entrevista: Iñaki Olano.
- 26 Tribuna libre.
- 27 Media Calle.
- 31 Cómic.
- 32 Cosas de Don Tello.
- 33 **DOSSIER:** El bombardero americano que se estrelló en Mendata.
- 54 Egunean egunekoak.
- 74 Comadiraren txokoa.

## INTERIOR

- 21 La estación de Atxuri se cierra.
- 22 Menú 6: Schlachtplatte/ Sanguinacci ...
- 24 Informe población extranjera 2019.
- 46 IV. Photoka Saria 2019 Auzo Lehiaketa.
- 48 Bidegile *Berba*lagun, Euskara Bidelagun.
- 50 Ecosistema de Urdaibai.
- 51 Marijesien kronistak *Euzkadi* egunkarian
- 56 Orkatz Aranaz.

## KIROLAK

- 59 Rugby: Eduardo Maidagan ...
- 62 Cesta punta.
- 65 XXII. Xixili Torneoa.
- 66 Cronoescalada a Lumo.
- 67 Atletismo.
- 68 Berdintasunaren aldeko torneoa
- 69 Torneos del Pasealeku.
- 73 Obituario: Agur *Koke*.



«ALDABA» es una revista independiente. La publicación de cartas y artículos firmados no supone que la revista se identifique con el contenido de los mismos.

La extensión de los trabajos remitidos por los colaboradores no podrán exceder de tres páginas mecanografiadas a doble espacio, o su equivalente a 150 líneas aproximadas. En el caso de que los trabajos excedan estos límites, la dirección se reserva el derecho de publicación.

Prohibido reproducir total o parcialmente cualquier artículo de esta Revista, sin citar su procedencia.

OHARRA: «ALDABA»-ren eritzia editorialean dago. Artikuluaren erantzunkizuna egileena da.

Warriors de Errenteria.  
© Javier Ureña.

# ALDABA

Çennika-Lumoko Aldizkaria.

2019 - iraila - abendua - 210 zkia. 37 urte - 5€



- Torneos del Pasealeku
- Atxuri se cierra definitivamente
- Cronoescalada a Lumo